

Altza

Larraitz Garmendia (943-39 12 67)

Donostiak Altza bereganatu zueneko urteurrena dela eta, azaroaren 17an Altzatarren Eguna ospatuko da. Horren haritik, hainbat iharduera egingo dira auzoan.

besteak beste, azpimarratzekoa da, Plazara ekoiztetxeak eginiko "Altzako Mugak" izeneko bideoaren aurkezpena.

Bideoaren gidioa, Altza Historia Mintegiak egin du. Mintegiak auzoko mugarririk buruzko lan garrantzitsua egin du.

Bideoaz gain, antolatu berri den argazki lehiaketako argazkiak izango dira ikusgai. Altzako pilotalekua eta San Martzial plaza inguruak izango dira Altzatarren Egunaren topagune nagusiak. Hainbat txosna ipiniko dira, eta bertan, hainbat ekitaldi egitekoak dira.

Argazki lehiaketan parte hartu nahi baduzu, kontuan izan, argazkiak aurkezteko azken eguna hilaren 15a dela. Argazkiak honako helbidera

"Altzako Mugak"
izeneko
bideoa
aurkeztuko da

Altzatarren Eguna ate joka



Garai bateko Altzako irudia: Martilungo bidea. Altzagaineko San Martzial plazatik begiratuta.

bidali behar dira: Altzako Historia Mintegia, Darieta bidea 1, 20017 Altza. Aukeraturako gaia "Altza eta alzata-rrak" da. Argazkiek 18X24 tamainakoak izan behar dute. Aurkeztutako lanak, azaroaren 17an ezezik, hilaren 20tik 24a bitartean ikus ahal izango dira kultur etxean.

XI. Txotxongilo Jaialdia

Bestelakorik ere izango da, izan ere, Gorakada antzerki taldearen emankizunarekin, XI. Txotxongilo Jaialdia hasiko da. Taldeak "Aitonaren kontuak" antzezlanak jokatuko du, Auzo Etxean arratsaldeko 18.00etan. "Aitonaren kontuak", hiru eta zazpi urte bitarteko umei zuzenduriko txotxongilo ikuskizuna da. Ikuspegi artistikoari dagokionez, ametsen munduan eta haurtzaroko desioetan oinarriturik dago. Lana amets batek abiatzen da. Bere fantasiak egi bihurtzen ahaleginduko

Argazki erakusketa antolatuko da auzoan

den ume bat izango da protagonista. Ume horren gorabeherak izango dira antzezla-

naren hizpide nagusiak. Umearen abenturek pertsonaia dibertigarriez betetako mundura eramango gaituzte.

Beraz, datorren ostiralean egongo da zer gozaturik auzoan. Asko eta asko izango dira kalera irtengo diren auzotarrak. Ea eguraldiak hain ederra den egun hori oraindik ere ederrago izaten laguntzen duen!

Astrozombies taldea aurrera

Zaunka Records disketxeak plazaratutako CD berrian bost punk-rock taldeen abestiak bildu ditu. CDan Astrozombies Altzako taldearen bi kantu entzun daitezke: "I Can't See You" eta "Vuelve a pensarlo". Taldekideak ez dabilta makal azken boladan. Ederki mutilak!

Bernedo eta Lizarrara Adiskirekin

Adiski asialdi taldeak haur kanpaldia antolatu du abendu zubi-rako. Abenduaren 6tik 10era haurrak Bernedo eta Lizarrara joango dira. Izena eman nahi duenak taldearen egoitzara jo behar du. Haurrek Nafarroa eta Araba ezagutzeko primerako aukera izango dute.